

**EBAZPENA, 2019ko uztailaren 29koa, Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiarena, Uholde-prebentzioko arduradun lanpostua betetzeko prozesuaren Kalifikazio-epaimahaiaren osaketa berria onartzen dituen.**

Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiaren 2019ko maiatzaren 30eko Ebazpenaren bidez, Uraren Euskal Agentzian zenbait lanpostu behin betiko betetzeko eta lan-poltsak eratzeko hautaketa-prozesuari buruzko IRAGARKIA argitaratu zen 2019ko ekainaren 17ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA 113. zk.). Argitara emandako lanpostu horien artean dago Plangintza eta Lanen Zuzendaritzako Uholde-prebentzioko arduradun lanpostua.

Uraren Euskal Agentziako Uholde-prebentzioko arduradun lanpostua betetzeko hautaketa-prozesua arautzen duten oinarrien seigarren oinarrian zehaztutakoari jarraituz, Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiaren 2019ko uztailaren 5eko Ebazpenaren bidez, Kalifikazio-epaimahaiko kideak izendatu zen.

Aztertu da presidentearen ordezkia izendatutako kideak aurkeztutako idatzia, prozesu honetan parte hartzetik abstenitzeko. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan ezarritakoaren indarrez, Kalifikazio-epaimahaiaren osaketa egokitzea beharrezkoa da.

Horiek guztiak horrela,

#### ERABAKI DUT

**Lehenengoa.-** Uraren Euskal Agentziaren Plangintza eta Lanen Zuzendaritzako Uholde-prebentzioko arduraduna hautatzeko prozesuko Kalifikazio-epaimahaiaren osaketa berria onartzea.

	Titularra	Ordezkoa
Presidentea	Jose M <sup>a</sup> Sanz de Galdeano Equiza (Uraren Euskal Agentzia)	María Luisa Moreno Santaengracia (Confederación Hidrográfica del Ebro)
Mahaikidea	Iñaki Arrate Jorrín (Uraren Euskal Agentzia)	Jose Ignacio Inoriza Aizpurua (DAEM Eusko Jaurlaritza)
Idazkaría	María López de Heredia (Uraren Euskal Agentzia)	M <sup>a</sup> Teresa Mena Aguilar (Uraren Euskal Agentzia)

**Bigarrena.-** Ebazpen hau Uraren Euskal Agentziaren web-orrian ([www.uragentzia.euskadi.eus](http://www.uragentzia.euskadi.eus)) eta Campo y Ochandiano kanpoko aholkularitza-enpresaren web-orrian ([www.campo-ochandiano.com](http://www.campo-ochandiano.com)) argitaratzea.

Gasteiz, 2019ko uztailaren 29a.

Ernesto Martínez de Cabredo Arrieta  
Zuzendari nagusia  
Uraren Euskal Agentzia